



Lobster soup

Herri baten arimaren aterpea



Rafael Molés eta Pepe Andreu, dokumentalaren egileak.

GARI GARAIALDE

IRENE ELORZA

Oquendo tabernan hasi zen gorpuzten *Lobster soup* dokumentalaren proiektua, orain dela hiru urteko Zinemaldian. Bertan elkartu ziren SUICAFilms-eko Pepe Andreu eta Rafael Molés zuzendariak RECekoiztetzeko Jose Luis Ru-

biorekin. Islandiako herri txiki bateko taberna berezi bati buruzko istorioa kontatu nahi zuten valentziarrek. "Bi hilabete geroago Islandian grabatzen geunden", azaldu du Andreuk. Handik urtebetera, Donostia Zinemaldiko Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroan parte hartu zuen proiektuak,

eta Ibaia eta Treeline Distribution sariak eskuratu zituen bertan.

Foroak sekulako bultzada eman zion egitasmoari, jendaurrean jarri eta lantaldearentzat ateak irekitzen hasi baitziren. Jendearen interesa piztu zutela jakiteak lasaitasuna eman zien egileei, eta Molésék adierazi duen be-

zala, "proiektua proban jartzeko baliotu du, azken finean zu denbora luzez bakarrik zaude zure proiektuarekin, eta egun horietan besteekin konpartitzea oinarritzokoa da".

Turista sorginduak

Grindavik, Islandia helgoaldean dagoen arrantzale herri txiki bat da. Planeta osoko jendeak ezagutu nahi du herrialde misteriozua; liluratuta ikusten dituzte sumendiak, izotza eta Lurraren sorrera gogora ekartzen dituzten paisaiak. Turista oldeak erakartzen dituen Blue Lagoon bainuetxe geotermikotik gertu dago herririka, eta, bat-batean, bisitarien ibilbidean kokatuta geratu da herririka. Bertan dago Bryggjan kafetegi txikia, komunitate baten topaleku eta arima bihurtu den babeslekua. Pepe Andreuk eta Rafael Molésék 2006an ezagutu zuten lekua: "Sartu orduko, lokala, dekorazioa eta jendea ikusi eta zerbait berezia arnasten zela konturatzzen zinen", dio Andreuk. Benetako jendea, benetako leku batean.

Kontatzea merezi zuen istorio bat zegoela erabaki zuten. Izan ere, bertako musikariak, poetak, arrantzale zaharrak, Islandiako azken boxeolaria, On Kixote gaztelaniatik islandierara itzuli zuen pertsona eta abar,

turistekin nahasten ziren egunero kai zaharreko tabernan, eta giro berezia sortzen zen eguna joan eta eguna etorri. Bidean, Ólafur Rögnaldsson gidoilari eta ekoizle islandiarraren laguntza izan zuten, bertako kulturarekin zubilana egiteko.

Dokumentalgileak hamaika urte ondoren itzuli zirenean, tabernako jabeek, Kristinn and Adalgeir Johansen anaiek, lokala saltzear zedela ohartarazi zieten. Kate batek hotel bat eraikitzeke asmoa zuen eta errefusatu ezinezko eskaintza bat jaso zutela aitortu zieten. "Bukaera badaukagu, pentsatu genuen", dio Molésék. Baina errealitatea egoskorra da eta bukaera harrigarri eta biribila eskaini zien zinemagileei.

Bryggjan kafetegiaren egunero-ko bizimoduaren mosaikoaren bitartez, Andreuk eta Molésék turismoaren eraginaz, gentrifikazioaz eta globalizazioaren arriskuez aritzen dira dokumentalean. "Islandiarrek turismoa liluraz ikusten zuten, itxaropen berri bat bezala; eta guretzat, berriz, genduzen lekutik etorrita eta bizi izan duguna ezagututa, *dejà vu* bat bezalakoa zen", azaldu du Rafael Molésék. Horren adibidie garbia da, 2018an, 1,5 milioi turista iritsi zirela Islandiara, 350.000 biztanle dituen uharte bakartira.



: Zinemaldiko informazio guztia

www.naiz.eus

naiz: